

BIZILORE eskola aktiboa

2012an Azkoitian martxan jarri zuten proiektu honetan hurrek beren interesen arabera ikasten dute.



Proiektua hobeto ezagutzeko, ariketa hauek egin ditzakezu:

- Hitz batzuek zer esan nahi duten asmatu.
- Bideoa ikusi eta hutsuneak bete.
- Testua irakurri eta definizioen esanahiak testuan topatu.

Zer esan nahi dute?

Ariketa-sorta egin aurretik, saiatu binaka ondorengo hitz hauek zer esan nahi duten definitzen.

Ondoren, talde handian eztabaidatu:

- HEZKUNTZA:
- IKASTAROA:
- LANTEGIA:
- EZAGUTZA:

Ikusi bideoa

Azkoitian Bizilore eskola aktiboa dago eta guk Zaine Rekondo elkarrizketatu dugu, haurrak bertara eramaten dituen gurasoa. Ikusi bideoa eta bete esaldi hauetako hutsuneak hitz egokia erabilita:



<https://labur.eus/dN4AA>



- Bizilore eskola aktiboa errespetuzko hazkuntza eta hezkuntza berrikuntzan da.
- 2012. urtean, gurasoek eta eman zituzten lehenengo urratsak.
- Umeen sarrera malgua da, 9:00etatik aurrera.
- Eskolako sarreran umeek batzuk dituzte.
- Umea jolasean ari denean, gurasoak lasai ditugu.
- Hiru espazio dituzte eta haurra bere arabera, joaten da batetik bestera.
- Biziloreri esker, etxea eta eskola eskutik eramateko aukera du familiak.
- Gurasoek modu hartzen dute parte seme-alaben hezkuntzan.
- Haurrari eta harreman-sare bat ematen dizkio Bizilorek.

Irakurri testua

Irakurri 'Bizilore eskola aktiboa' eta bilatu testuan definizio bakoitzari zein hitz dagokion:



Bizilore eskola aktiboa duela urte gutxi jarri zuten martxan Azkoitiko Altamira auzoan, eta egunez egun sendotzen ari den proiektua da. Eskolako guraso den Zaine Rekondok kontatu digunaren arabera "errespetuzko hazkuntzan eta hezkuntzan oinarritzen da proiektua. Lesakarra, Azkoitian bizi da gaur egun: "2012. urtean abiatu zen guraso batzuek eta hezkuntzako profesional batzuek bultzatuta. Hezkuntza zen euren kezka, eta forma berria zuen zerbait sortu nahi izan zuten. Nire alabak ikasten du bertan, eta, laster, semeak ere bai".

ESKOLA AKTIBOA BAINO ASKOZ GEHIAGO

Bizilore Hazitik kooperatibaren proiektu bat da, eta lau lan-lerro ditu: eskola aktiboa, guraso eta hezkuntzako profesionali zuzendutako formakuntzak asteburuetan, ikastaroak eta lantegiak bailarako ume nahiz helduentzat; eta udalekuak Euskal Herriko haurrentzat. "Horrez gain, Abaraxka izeneko jatetxe-taberna eta aterpetxea ere baditugu. Ekonomikoki sostengatzen du horrek guztiak Bizilore eskola aktiboa".

Hogei ikasle dituzte une honetan, 2 urtetik 6 urte artekoak. "12 urte bitarteko ikasleak izango ditugu, baina handienak adin horretara iristen direnean. Izan ere, berriak 2 edo 3 urterekin hasten dira: araua hori da guretzat".

EGUNEROKO MARTXA

Sarrera malgua da haurrentzat: 9:00etatik aurrera sar daitezke, bakoitza bere erritmoan. Iristean, etxeko zapatilak janzen dituzte, eta lasai agurtzen dute euren senidea: "Esplorazioan edo jolasean ari dela ikusten dugunean joaten gara. Beraiek 11:00ak bitartean zirkulazio librean aritzen dira; haien nahien arabera, gune bata edo bestea aukeratzen dute".

Horretarako, hiru gune dituzte: lehenengoan, psikomotrizitatea lantzeko mugimendu-gune bat dute, eraikuntzarako leku zabal batekin batera; bigarrenean, sormena eta esperimentazioa lantzen dituzte; eta, hirugarrenean, ezagutzarekin lotutako material zehatzak daude. "Beraien interesetatik abiatuta, jolasen bidez, ezagutza lortzea da helburua. Gure ustez, ikaskuntza barrutik kanpora gertatzen da, norberaren garapen-prozesua da eta bizitza osoan zehar egiten da. Testuinguru bat eskaini nahi dio Bizilorek haurrari hori bultzatzeko".

Guztiak batera egiten dute hamaiketako, eta, ondoren, kanpora ateratzen dira egunero. "Natura oso garrantzitsua da umeentzat. Euritako arropa, katiuskak eta aldatzeko arropa eskolan dauzkate; eta, eguraldia edozein izanda ere, atera egiten dira".

BIDELAGUNAK

Hiru bidelagun dituzte. Magisteritza ikasi duten arren, ez diete 'irakasle' deitzen. "Umeari garapen-prozesuan laguntzen diotelako izendatzen ditugu bidelagun. Ikaskuntza ez da ezagutzak eskuratzea bakarrik, norberaren interesetatik abiatuta bizitzan zehar gertatzen dena da. Helduok testuinguru bat prestatu behar diegu: haurra lasai egoteko lekua, konfiantzazkoa. Horrek ez du esan nahi haurrak nahi duena egingo duenik". Bidelagunak behaketaren bidez lagundu egingo dio umeari, bere ondoan egongo da beti. Ez dago inposiziorik, laguntza bakarrik.

Bizilore eskola aktiboa pixkanaka homologatua izateko bidea egiten ari da: Hezkuntzak eskatutako baldintzak betetzen ditu, eta, azken lanak amaitzean, 12 urte artekoentzat eskola homologatu bihurtuko da.

"Guraso izanik, haurrak eskolatik zein pozik etortzen diren ikusteak jarraitzeko indarra ematen digu. Hezkuntza ikusteko dugun modutik eraikitzen dugu eskola, eta gurea egiten dugu", azaldu digu Rekondok.

Eta zuri, zer iruditzen zaizu Bizilore eskola aktiboa? Ezagutzen duzu antzeko proiekturik? Seme-alabak edo ilobak bertara eramango zenituzke?

Orain, bilatu testuan definizio bakoitzari zein hitz dagokion.

- Egonezina eragiten dizuna:
- Errespetatu behar dena, zerbait nola egin adierazten duena:
- Zerbait berria garatzeko gaitasuna:
- Zaintzeko ekintza:
- Norbaitek ezarritako betebeharra:



Zuzenketa-orria

Ikusi bideoa

- Bizilore eskola aktiboa errespetuzko hazkuntza eta hezkuntza berrikuntzan (oinarritzen) da.
- 2012. urtean, gurasoek eta (hezkuntzako profesionalek) eman zituzten lehenengo urratsak.
- Umeen sarrera ordua (malgua) da, 9:00etatik aurrera.
- Eskolako sarreran umeek (kutxa) batzuk dituzte.
- Umea jolasean ari denean, gurasoak lasai (agurtzen) ditugu.
- Hiru espazio dituzte eta haurra bere (nahien, beharren, interesen) arabera, joaten da batetik bestera.
- Biziloreri esker, etxea eta eskola (elkarren) eskutik eramateko aukera du familiak.
- Gurasoek modu (aktiboan) hartzen dute parte seme-alaben hezkuntzan.
- Haurrari (testuinguru) eta harreman-sare bat ematen dizkio Bizilorek.

Irakurri testua

- Egonezina eragiten dizuna: (kezka)
- Errespetatu behar dena, zerbait nola egin adierazten duena: (araua)
- Zerbait berria garatzeko gaitasuna: (sormena)
- Zaintzeko ekintza: (behaketa)
- Norbaitek ezarritako betebeharra:(baldintza)

Transkripzioa

1. Zer da Bizilore?

Bizilore da errespetuzko hazkuntza eta hezkuntza berrikuntzan oinarritzen den proiektu bat. 2012an hasi zituen bere lehen urratsak eta momentu hartan, elkartzen hasi ziren; batzuk gurasoak ziren, beste batzuk hezkuntzako profesionalak... Bazituztenak hainbat kezka hezkuntzaren inguruan, eta eskaini nahi zutenak zerbait, forma desberdina zuena.

2. Zein izaten da zuen eguneroko martxa?

Umeak etortzen dira goizez eskolara, sarrera malgua da, adinaren arabera malguagoa. Baina bueno, gutxi gorabehera 9:00etan da sarrera ordua eta hortik bakoitza bere erritmoan etortzen da. Sarreran kutxa batzuk ditugu; orduan, etortzen dira umeak, eta aldatzen ditugu oinetakoak, jutzen dituzte etxeko zapatilak eta igotzen gara eskola dagoen tokira orain.

Eskolan gurasoak agurtzen ditugu lasai, umea ikusten dugunean esplorazioan hasi dela, jolasean hasi dela, agur erraten diogu... Umeak goizean 9:00etatik 11:00etara dute aukera zirkulazio-librean aritzeko. Horretarako, eskaintzen zaiena da, badauzkate hiru espazio, irekita eta hiru heldu daude haiekin. Hiru espazio horietan umea bere nahi eta beharren arabera, dabil espazio batean edo bestean.

3. Zer eskaintzen dio proiektu honek haurrari? Eta familiari?

Familiari nagusiki eskola eta etxea, elkarren eskutik bide bat egiteko aukera. Eta bueno, badauzkagu, agian, bereizgarri gisa, agian ulertzeko, hilabetean behin elkartzen gara, hausnarketa-saio deitzen diegun bilera batzuk egiten ditugu. Beraz, dugu aukera gure seme-alaben hezkuntzan eta hazkuntzan modu konszientean parte hartzeko. Eta aukera hori eskaintzen digu.

Eta umeari nik uste dut eskolak eskaini nahi diola testuinguru bat eta harreman-sare zabal bat garatzeko aukera emango diona. Nagusiki nik uste dut bi gauza horiek dira eskaintzen dizkigunak.